



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

TOKIKO AZOKA ETA MERKATUETAKO SALTOKIEN ESLEIPENARI BURUZKO TXOSTENA

LEAren proiektu-zenbakia: 240-SUST-2017

Sumarioa:

I. TXOSTENAREN XEDEA ETA ARAZOAREN PLANTEAMENDUA.....	1
II. ARAUDI APLIKAGARRIA ETA ARARTEKOAREN TXOSTENAK.....	2
III. EUDELEN ORDENANTZA-EREDUA, KALEZ KALEKO SALMENTARI BURUZKOA.....	6
IV. UDALEN ARAUDIA ETA JARDUTEKO GAITASUNA.....	9
V. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN, BILBAO BIZKAIA KUTXAREN ETA EUDELEN LANKIDETZA-HITZARMENA	12
VI. ONDORIOAK	15

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala

Enara Venturini Álvarez andrea, bokala

Maria Lourdes Muñoa Corral andrea, idazkaria

1. Goian aipatutakoak osoko bilkuran bilduta, Lehiaren Euskal Agintaritzak (aurrerantzean LEA) honako txosten hau eman zuen 2018 maiatzaren 22ko bileran Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) udalerrietako tokiko azokekin batera egiten diren noizean behingo edo aldizkako merkatuetako saltokiak esleitzeari buruz.

I. TXOSTENAREN XEDEA ETA ARAZOAREN PLANTEAMENDUA

2. EAEko udalerrietan egiten diren tokiko azoketako merkatuetan sartzeari ezinezkoa dela dioten operadore ekonomikoen kexak eta salaketak jaso ditugu Arartekoak eta Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC).

3. Txosten honen bitartez, udalen araudiek eta jarduerak lehia askeari eragiten dioten aztertzen du LEA/AVCk, produktuak kalean sal ditzaketan operadore ekonomikoak hautatzeari dagokionez.



4. Txosten hau eman da Lehia defendatzeko 15/2007 Legeak¹ autonomia-erkidegoen eskumeneko defentsa-organoei txostenak igortzeko ematen dien eskumena baliatuz; izan ere, aipatutako organo horien artean dago LEA/AVC.

5.²Era berean, txosten hau Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeak organismo honi esleitzen dion eskumenaren barruan emango dugu; hau da, administrazio publikoei merkatuetan lehia mantentzeko edo berreskuratzeko gomendioak emateko eskumenaren barruan.

6. Txosten honetan jasotako gomendioen bitartez, noizean behingo edo aldizkako kalez kaleko salmentako merkatuetan parte hartu nahi duten operadore ekonomikoei baimenak eman ahalko zaizkie, lehia murriztu ez dadin.

II. ARAUDI APLIKAGARRIA ETA ARARTEKOAREN TXOSTENAK

7. Hona hemen kontuan hartu beharreko araudia:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua.

Merkataritza jarduerari buruzko 7/1994 Legea, maiatzaren 27koa. Lege horren 15. artikuluan salmenta ibiltaria definitzen da. 7/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, zerbitzuen zuzentaraura moldatzeko Merkataritza-jarduerari buruzko Legearen bigarren aldaketarena (2008ko uztailaren 7ko 128. EHAA).

[7/1996 Legea, urtarrilaren 15ekoa](#), Txikizkako Merkataritza Antolatzeari buruzkoa, eta lege hori aldatzen duen martxoaren 1eko 1/2010 Legea. Aipatutako legearen 6. artikulua arabera, baimena jasotzeko, ezingo dira inola ere ezarri mota edo jatorri zehatz bateko produktuak edo zerbitzuak saltzera behartzen duten baldintza ekonomikoak.

33/2003 Legea, Herri Administrazioaren Ondareari buruzkoa. 86. artikuluan eta hurrengoetan.

17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa. EHAA 250. zk, 2008ko abenduaren 31koa.

17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu-jardueren sarbide libreari eta haien erabilerari buruzkoa. 6. artikulua baimena emateko prozedurari buruz hitz egiten du.

1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duena. 77. artikulua. Ondasun publikoen erabilera komun berezarako lizentzia beharrezkoa da.

199/2010 Dekretua, urtarrilaren 26koa, salmenta ibiltaria edo ez sedentarioa arautzen duena.

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa (BOE, 159. zk., 2007ko uztailaren 4koa).

² Ikus Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.1, 3.3.d eta 10.n artikulua (EHAA, 29. zk., 2012ko otsailaren 9koa). Hemen eskuratu daiteke:

http://www.competencia.euskadi.eus/z02-contnorm/eu/contenidos/informacion/legislacion_normativa/eu_normativ/legeak.html.



20/2013 Legea, abenduaren 9koa, merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoa. BOE 295. zk., 2013ko abenduaren 10ekoa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko lurralde historikoan egiten diren merkatu eta azoka tradizionaletan nekazaritza- eta elikadura-produktuen saltzaileen edota ekoizleen errolda arautzen duena. BOB, 32 zk., 2015eko otsailaren 17koa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 12ko 65/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko lurralde historikoan egiten diren merkatu eta azoka tradizionaletan nekazaritza- eta elikadura-produktuak saltzen-egiten dituzten pertsonen zentsua arautzen duen otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

8. Barne-merkatuaren zerbitzuei buruzko **2006/123/CE zuzentarauak** edonon kokatzeko eta edozein zerbitzu emateko eskubideen kontrako oztopo juridiko eta administratiboak ezabatzeko derrigortasuna inposatzen die estatuei, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 49. eta 56. artikuluetan jasotakoaren arabera.

9. Zuzentaru hori barne-antolamendu juridikoari erantsi zitzaionean, **Txikizkako Merkataritza Antolatzeko 7/1996 Legearen aldatu behar izan zen.** Horrek nahitaez ekarri zuen ondorengo estatutuen garapenaren erreforma, horien edukia betekizun berrietara moldatzeko: beharrezkoak ez ziren izapideak kentzea eta merkataritza arloko baimenak emateko prozedura administratiboa sinpletzea. Aldaketa hori martxoaren 1eko 1/2010 legearen onarpenaren bitartez egin zen.

10. Legearen 6. artikulua ezartzen du interes orokorreko arrazoiengan oinarritu behar direla ezinbestean saltokiak jartzeko baimena edo erantzukizunpeko adierazpena emateko baldintzak. Edozein kasutan, ezin dira diskriminatzaileak izan, baina bai proportzionatuak, argiak, objektiboak, aldez aurretik argitaratuak, aurrez jakiteko modukoak, gardenak eta eskuratzeko errazak.

11. Aipatutako legearen 54. artikulua udalen baimenen ingurukoa da. Artikulu horretan ezartzen da hautaketa-prozesuan bermatu egin beharko direla gardentasuna, inpartzialtasuna eta, zehazki, publizitate egokia prozesuaren hasieran, garapenean eta bukaeran, zoru publikoaren eskasia dela-eta, baimen kopurua mugatua delako.

12. Aipatutako hautaketa hori udalek erakunde pribatuak aukeratzeko duten eskumen ordezkaezina da. Arartekoak zehatz-mehatz analizatu du³:

«Horrexegatik ulertzen dugu udal-administrazioari dagokiola erakunde horren eskariari erantzutea, alde batetik, kudeaketa-mandatuak ez duelako titulartasunaren lagatzea eskatzen, eta, bestetik, zuzenbide administratiboak arautzen dituen jarduerak ezin direlako izan

³ **Arartekoaren** 2017ko martxoaren 20ko **2017R-820-16 Ebazpena**, **Ortuellako** udalari aholkatzen diona nekazaritzako elikagai-azokei espazio publikoa esleitzeko araudia legezkotasunera moldatzea.



zuzenbide pribatuak arautzen dituen erakundeei egindako kudeaketa-mandatuen xede. Edozein kasutan, organo eskudunak erabaki beharko ditu egintzak eta ebazpenak.

Laburbilduz, udalak ezin du zuzenbide administratiboa saihestu jabari publikoko administrazio-baimenak direlako. Baimen horiek mugatuak direnez, lehia-araudiaren mende daude, hau da, prozedura publikoaren bitartez eman beharko dira, kalez kaleko salmenta edo ez sedentarioa arautzeko otsailaren 26ko 199/2010 Errege Dekretuaren 4. artikulua ezarritakoari jarraikiz.

Horrenbestez, kasuan kasuko administrazio-espedita aurretiaz izapidetuta, udalaren egoitzan eskuragarri egon behar da dokumentazio hori, lizentziak emateko eskumena, sektoreko legeek espresuki udalbatzari edo tokiko gobernu-batzarrari esleitu ezean, alkateari dagokio, eta ahal hori toki-erakundearen beste organo batzuei eskuordetu ahal bazaie ere, ezin du elkarteak gauzatu, azokaren antolatzailea izan arren (Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.q artikulua).

Aurrekoari kalterik egin gabe, udalak azokaren kudeaketan parte hartzen duen elkarte turistikoarekin nolabaiteko lankidetzaz ezarri ahal izango du, baina beti organo eskudunak arazoituta ebazpenaren bitartez saltokiak esleitu eta gero».

13. Orokorrean merkataritza-banaketako zerbitzu-jarduerak aurretiazko administrazio-baimenik behar ez badute ere, kalez kaleko salmenta edo ez sedentarioa egiteko barne-araudiaren arabera, aurretiazko baimen hori beharrezkoa da, «besteak beste, ordena publikoa, segurtasuna eta osasun publikoari loturiko interes orokorreko arrazoi garrantzitsuekin bateragarria izan behar delako zoru publikoaren erabilera mota honetako merkataritza-jardueretan⁴».

14. Horrela ezartzen du **2010eko Errege Dekretuak**, Txikizkako Salmenta Antolatzeke Legearen garapenerako **kalez kaleko salmenta arautzen duenak**, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 legea gogora ekarritz

15. Errege Dekretuak ondo jasotzen duenez, jabari publikoko zoru erabilgarria eskasa da, eta horregatik mugatu behar da baimen kopurua. Horrexegatik, hain zuzen, izan behar da esleipen-prozedura publikoa eta gardena.

16. 2010ean Errege Dekretua indarrean jartzeak izaera ekonomikoko baldintzak eta baimena esleitzeko irizpide ekonomikoak desagerrarazi zituen, besteak beste, hauek: baimena behar ekonomiko bat edo merkatuaren eskari bat baldin bazegoen baino ez ematea; jardueraren balizko edo egiazko eraginak aztertzea; eta jardura agintaritza eskudunak ezarritako programazio ekonomikoko helburuekin bat zetorren aztertzea.

17. Aipatutako Errege Dekretuaren lehen artikulua kalez kaleko salmenta edo ez sedentarioa honela definitzen du: merkatariek merkataritza-saltokietatik kanpo egiten

⁴ 199/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 26koa, kalez kaleko salmenta edo ez sedentarioa arautzen duena.



duzen salmenta, maiztasuna eta tokia edozein direla ere. Lau motatakoa izan daiteke:

- a) Merkatu txikietako salmenta.
- b) **Noizean behingo edo aldizkako merkatuetako salmenta.**
- c) Bide publikoko salmenta.
- d) Denda-kamioien bidezko kalez kaleko salmenta.

18. Deskribatutako mota horietatik guztietatik jaiak ospatzeko ezartzen diren tokiko azoketako salmentari hobeto egokitzen zaiona b) letrakoa da, izan ere, urtero jartzen diren noizean behingo merkatuak dira.

19. Bigarren artikulua ezarritakoari jarraikiz, udalei dagokie salmenta mota hori baimentzea.

20. Laugarren artikulua saltokien hautaketari buruz jarduten du, eta honako hau dio: «**udal bakoitzak zehaztuko du, betiere lehia-araubidea** eta Administrazio publikoen ondareari buruzko 33/2003 legearen 86. artikulua eta hurrengoek eta Zerbitzu-jardueretan libre sartzeari eta beren baliatzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen II. Kapituluaren jasotzen dituzten aurreikuspenak betez». Aipatutako 86. artikulua ezartzen duenez, baimena eskatu behar da jabari publikoaren aprobetxamendu berezietan, instalazio desmontagarriekin edo ondasun higigarriekin okupatzen bada.

21. Bigarren atalak ezartzen du prozedura publikoa izango dela, eta izapideak egiteko, irizpide argiak, errazak, objektiboak eta aurrez jakiteko modukoak ezarriko direla. Prozeduraren ebazpenean ezarriko dira baimena jasotzeko baldintzak, eta beharrezkoak, proportzionalak eta ez diskriminatzaileak izango dira.

22. Bosgarren artikuluan ezartzen da eskaria aurkezteko erantzukizunpeko adierazpen bat baino ez dela beharrezkoa izango.

23. Aipatutako artikulua hirugarren apartatuan aipatzen da **ezingo dela inola ere parte hartzeko irizpide gisa eskatu udalerrri horretan bizitzea**. Gainera, bosgarren zenbakiak ezartzen du ez dela beharrezkoa izango erantzukizunpeko adierazpenean zehaztutako gainerako baldintzak agiri bidez frogatzea.

24. Bestalde, 2013ko Merkatu Batasunari buruzko Legeak operadore ekonomikoen kokatze- eta zirkulazio-eskubideak biltzen ditu, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak premia-, proportzionaltasun- eta diskriminazio ezaren printzipioei buruz emandako jurisprudentzian oinarrituta.



25. Arartekoak hainbat txosten eman ditu⁵, eta LEA/AVC bat dator haietan emandako edukiekin eta ondorioen diagnostikoarekin. Txosten horietan hainbat motatako irregulartasunak aipatzen dira, udal batzuek tokiko azoketan parte hartzeko baimena eskatzen duten operadore ekonomikoak hautatzerakoan egiten dituztenak. Esaterako, batzuetan ez dira hautaketa-irizpideak argitaratzen, eta, horrenbestez, hautaketa ez da gardena. Beste kasu batzuetan saltokiak esleitzeko arrazoiak falta dira, eta horrek arbitrariotasuna dakar. Beste batzuetan, ezarritako hautaketa-irizpideak baztertzailak dira; hau da, legez kanpokoak.

26. Arartekoari aurkeztutako kexa horiek gorabehera, udal batzuen jarrera diskriminatzaileak bere horretan jarraitzen du, eta, horrenbestez, kexa horiek LEA/AVCri aurkeztutako salaketa bihurtu dira. Erakunde autonomo honek txostenak emateko eskumenaz gain, zehapen-eskumena eta administrazio-egintzen eta xedapen orokorren aurka egiteko eskumena ere badu. Dena den, lehen fase batean honako sustapen-txosten hau ematea erabaki da⁶.

III. EUDELEN ORDENANTZA-EREDUA, KALEZ KALEKO SALMENTARI BURUZKOA

27. Eudelek bere webgunean argitaratuta dauka⁷ kalez kaleko salmentari buruzko ordenantza-eredu bat, udalen lana errazteko.

⁵ **Arartekoaren 2014S-125-12 Ebazpena**, Mungia-ko udalari aholkatzen diona udalerrian egiten diren noizean behingo merkatuetako eta azoketako saltokien gaineko betekizunak eta esleipen-prozeduran parte hartzeko irizpideak zehaztea.

Arartekoaren 2017R-2284-16 Ebazpena, 2017ko abuztuaren 16koa, Zumarragako udalari aholkatzen diona Santa Luziako azokan espazio publikoa okupatu ahal izateari loturiko baimenaren araudia legezketasunera moldatzea.

Arartekoaren 2016ko martxoaren 7ko 2016R-1601-15 Ebazpena, Bermeko udalari aholkatzen diona noizean behingo azoketan espazio publikoa okupatu ahal izateari loturiko baimenaren araudia legezketasunera moldatzea.

Arartekoaren 2014ko apirilaren 7ko 2014S-2063-11 Ebazpena, Berangoko udalari aholkatzen diona udalerrian egiten diren noizean behingo merkatuetako eta azoketako saltokien gaineko betekizunak eta esleipen-prozeduran parte hartzeko irizpideak zehaztea.


Arartekoaren 2014ko apirilaren 15eko 2014S-2250-11 Ebazpena, Gernika-Lumoko udalari aholkatzen diona udalerrian egiten diren noizean behingo merkatuetako eta azoketako saltokien gaineko betekizunak eta esleipen-prozeduran parte hartzeko irizpideak zehaztea.

Arartekoaren 2017ko martxoaren 20ko 2017R-820-16 Ebazpena, Ortuellako udalari aholkatzen diona nekazaritzako elikagai-azokei espazio publikoa esleitzeko araudia legezketasunera moldatzea.

⁶ Ikus otsailaren 2ko 1/2012 Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen 3.2. a) eta 3.4 artikulua.

⁷ EUDEL. Webgunea honako url helbide honetan aurki daiteke:

http://www.eudel.eus/eu/documentos/no_fiscales_0



28. Ordenantza-ereduaren 8. artikulua hautaketa-prozedurari buruzkoa da, eta honakoa dio:

8. artikulua: Hautaketa-prozedura

1. Hautagaiak aukeratzeko prozedurak **lehia-araubidea errespetatuko du, eta gardentasunaren, inpartzialtasunaren, diskriminazio ezaren eta publikotasunaren irizpideak bermatuko ditu.**

Izapideak egiteko, **irizpide argiak, errazak, objektiboak eta aurrez jakiteko modukoak ezarriko dira.**

2. Deialdia organo eskudunak emandako udal-ebazpenaren bidez egingo da.

3. (Aukerako apartatua) Kalez kaleko merkataritza profesionalagoa izan dadin eta kontsumitzaileak babesteko, eta kontuan hartuta gizarte-politikaren helburuak, tokiko kultur ondarea eta ingurumena zaindu beharra, eta interes orokorreko beste edozein arrazoi premiazko, udalak irizpide hauek erabili ditzake, betiere deialdiaren oinarrietan aurreikusita badaude:

- Eskatzaileak **esperientziaduna eta profesionala** izan beharko du, kalez kaleko salmenta-jarduera zein eremu geografikotan egin duen kontuan hartu gabe, merkataritza-jarduera modu egokian gauzatuko duela ziurtatzeko.

- Eskatzailearen **prestakuntza** frogatua, kalez kaleko salmentari buruzko ikastaroetan, jardunaldietan eta antzeko beste jarduera batzuetan parte hartuta.

- Eskatzailearen **egoera ekonomikoa eta soziala**. Adibidez, lan-merkatuan sartzeko zailtasuna edo ekonomikoki bere mende dagoen pertsona kopurua.

- **Administrazio-zehapenik ez jaso izana**, kalez kaleko salmenta edo salmenta sedentarioa arautzen duen legeren bat urratzeagatik.



- Kalez kaleko salmentako **kalitatearen** bereizgarri aitorturen baten jabe izatea.
- **Norberak ekoiztako tokiko nekazaritzako elikagairen bat saltzea; nolanahi ere, ezin izango da inor baztertu nazionalitatea edo bizilekua dela medio.**

29. Zortzigarren artikuluko hirugarren hautazko apartatuan interes orokorreko irizpideen zerrenda ireki bat ematen da, besteak beste, hauek biltzen dituen: esperientzia eta profesionaltasuna (i), prestakuntza (ii), egoera ekonomiko-soziala (iii), administrazio-zehapenik ez jaso izana (iv), kalitatea (v) eta norberak ekoiztako nekazaritzako elikagairen bat saltzea.

30. Dena den, ereduko testuaren arabera, ezin esan daiteke aipatutako irizpideak argiak, errazak eta, batez ere, aurretik jakiteko modukoak direnik EAEko kalez kaleko merkatuetan parte hartu nahi duten pertsonentzat. Horrenbestez, ezin jakin dezakete argitasunez zein den kasuan kasuko udalaren hautaketa-irizpideak.

31. Eredu horrek ez du irizpide bakoitzari eman beharreko puntuazioa aurreikusten. Hau da, ez du haztapenik ezartzen. Aldi berean, irizpide bakoitzaren barruan ez da zehazten zein elementu objektiboren arabera puntuatuko diren esperientzia, prestakuntza, egoera ekonomiko eta soziala, produktuaren kalitatea, etab.

32. Pentsatzekoa da lan hori udalek egin beharko luketela; dena den, errealitatean gertatzen dena da udalek ia inoiz ez dituztela haztatzen aipatutako interes orokorreko irizpideak, eta irizpide bakoitza nola puntuatuko den ere ez dutela ezartzen. Horren ondorioa lehia-araubidea, gardentasuna, inpartzialtasuna, diskriminazio eza eta publikotasuna lehenesten dituen araudiak lortu nahi duenaren juxtu kontrakoa da. Arartekoaren hitzetan⁸:

«Horrela bada, interesdun posibleek ez dute ezagutzen irizpide bakoitzaren haztapena erabakiak hartu aurretik, eta, horrenbestez, ez dute zehaztu gabeko parametro horiei aurka egiteko tresnarik».

33. Lehen apartatuak lehia-araudiaren printzipio nagusiak jasotzen baditu ere (gardentasuna, inpartzialtasuna, diskriminazio eza eta publikotasuna), hirugarren apartatuko interes orokorreko irizpideak noizean behingo merkatuetara sartzeko oztopoak dira, eta, beraz, tentuz eta azokaren antolaketarekin harreman zuzena dutelako behar bezala justifika daitezkeen kasuetan soilik erabiltzekoak dira. Izan ere, batzuetan interes orokorreko aitzakiaren atzean tokiko ekoizleen eta egileen aldeko erabaki arbitrarioa datza. Hautaketa diskriminatzailea debekatuta dago, ez bakarrik kalez kaleko salmentako lehia-eskubideari eta araubideari jarraikiz, baizik

⁸ **Arartekoaren** 2017ko abuztuaren 16ko **2017R-2284-16 Ebazpena, Zumarragako** udalari aholkatzen diona Santa Luziako azokan espazio publikoa okupatu ahal izateari loturiko baimenaren araudia legezkotasunera moldatzea.



baita Zigor Kodeko 404. artikuluari jarraikiz ere (administrazioaren prebarikazio delitua izan daiteke). Zehazki, 9 eta 15 urte bitartean lanpostu edo kargu publiko bat izateko eta sufragio pasiborako eskubidea erabiltzeko debekua dakar delitu horrek.

34. Bestalde, lehia askea interes orokorreko beste irizpide bat da, eta noizean behingo merkatuetako kalez kaleko salmentaren ordenantza-ereduan jaso liteke. Horrela, hautatuek kalitatezko produktuak preziorik onenean eskainiko lituzkete. Merkatuetara joaten direnek asko eskertuko balute ere, elementu hori ez da kontuan hartzen. Gainera, ekoizleen eta egileen arteko lehiatik onura ekonomikoak lortuko lituzke merkatuak, batez ere kontuan hartzen badugu merkatu horiek jabari publikoko zoruetan egiten direla.

35. Produktu berdinak edo antzekoak saltzen dituzten parte-hartzaileen arteko lehia eraginkorra izan dadin, ahalik eta parte hartzerik handiena bermatu behar da; izan ere, ezin dugu ahaztu denak ari direla lehian toki txiki batean eta iraunaldi laburreko merkatu batean (egun bat edo batzuk irauten du).

36. Era berean, ezin dugu ahaztu udalek ematen dituzten hautaketa-ebazpenak Lehiaren Defentsari buruzko legearen 4.2 artikuluan jasotako debekuen menpe daudela. Aipatutako debeku horien artean daude edozein xederekin egindako akordio edo erabakiak, baldin eta lehia saihestu, mugatu edo faltsutzen badute edo efektu hori izan baldin badezakete.

37. Lehia-araudia eta gardentasunaren, inpartzialtasunaren, diskriminazio ezaren eta publikotasunaren irizpideak behar bezala aplikatzeko ordenantza eredu on bat Avilako udalarena da.⁹ Ordenantza horretako bosgarren artikuluan ezartzen denez: «Eskari kopurua eskuragarri dagoen espazioa baino handiagoa balitz, esleipena zozketa publiko bidez egingo da; hortaz, edozein pertsona bertaratu daiteke eta abisua emango da, bai udalaren webgunean, bai iragarki-taulan».

IV. UDALEN ARAUDIA ETA JARDUTEKO GAITASUNA

38. Gure autonomia-erkidegoko udalen webguneetan eskuragarri dauden ordenantzen azterketa sakona egin da. Gainera, azoka tradizionaletako parte-hartzaileak hautatzeko prozeduraren inguruko informazioa eskatu zaie hainbat udali.

⁹ 2016ko urriaren 3ko Ordenantza. Avilako Udala. Bide publikoa azoketako saltokiekin, salmenta-postuekin eta Avilako jai herrikoietako atrakzioekin okupatzeko araudiaren behin betiko onarpena. Avilako BOa, 2016ko urriaren 5ekoa, 193 zk. (9. or).



39. Egindako azterketatik ondorioztatu daiteke ordenantza batzuetako artikuluek oraindik ere lehentasuna ematen diotela ekoizlea edo egilea udalerrikoa edo gertuko udalerrri batekoa izateari, araudiak espresuki debekatzen badu ere.

40. Onartu diren azken ordenantzek Eudelen eredia kopiatzen dute. Horretarako, 8.3. artikuluko interes orokorreko irizpideak erabiltzen dituzte inolako haztapenik ezarri gabe. Horrek azokako parte-hartzaileak inolako babesik gabe uzten ditu beren eskabideak ukatzen direnerako. Bestalde, eskabideak ukatzeko zioak ez dira arrazoitzen normalean, eta arrazoitzen badira ere, ez dira behar beste arrazoitzen.

41. LEA/AVCk Euskadiko udalerrien jarduketa hauen berri izan du:

Udal batean urtero egiten da nekazaritza- eta artisautza-azoka bat. 2015ean azokan parte hartu nahi zuen hautagai batek prestatutako elikagaien txosna bat instalatzeko baimena eskatu zuen. Hautagaiak ez zuen udalaren erantzunik jaso, eta, beraz, Arartekoari kexa bat aurkeztu zion. Arartekoak hautagaiari eman zion arrazoaia, eta udalari etorkizunean hautaketa-irizpideak ezartzea eta azokak egiteko espazio publikoa lehia publikoaren araudiaren arabera esleitzea gomendatu zion, betiere legeak aurreikusitako baldintzak errespetatuz.

Udalak araudi bat garatzeko konpromisoa hartu zuen.

Arartekoak ontzat eman zuen udalaren erantzuna. Hala ere, udalak ez zuen espresuki hartu etorkizuneko esleipenak lehia-araudiaren arabera egiteko konpromisoa. Horren ordez, hautaketa-irizpideak Dekretu bidez ezartzeko konpromisoa hartu zuen, izan ere, ordura arte ez baitzegoen araudirik. Gainera, eskariren bat ukatuko balitz, onartutako araudiak ezarritakoaren arabera arrazoituta erantzuteko konpromisoa ere hartu zuen.

2016an udalak azoka arautzeko Alkatearen Dekretu bat argitaratu zuen. Hala ere, Dekretuaren bosgarren artikuluan ezarri ziren hautaketa-prozesuan lehentasuna izango zuten irizpideak; ekoizlea gertukoa eta gaztea izatea, «egun zaila delako merkatuan sartzea». Arartekoari hitz emandako guztia gorabehera, udalak ez zion hautagaiari erantzun, eta, beraz, hautagaiak berraztertzeke errekurso bat jartzea erabaki zuen. Oraingo horretan bai, aipatutako errekurso horri ezetz erantzutea ebatzi zuen udalak txosten juridiko batean oinarrituz. Aipatutako txosten horretan argudiatzen zen gertutasun-irizpidea ez dela diskriminatzailea tokiko azoka bat delako, eta ez eskualdekoa, probintziakoa edo nazioartekoa, eta, beraz «tokiko ekoizleei laguntzea duela xede». Horretarako, administrazioaren legezkoatasun-printzipioak hartzen zituen aitzakiatzat. Erantzun horrek ekoizleak Arartekoari aurkeztutako beste kexa bat ekarri zuen.

2017ko azaroan LEAk 2017ko nekazaritza- eta artisautza-azoka arautzen zuen Alkatearen Dekretua aztertu zuen. Aipatutako dekretuaren lehen xedapenaren arabera, ezin da azokako saltokietan elikagairik kozinatu, jarduketa hori udalarentzat erreserbatzen delako eksklusiboki. Laugarren xedapenak lehentasuna ematen die irizpide hauei: gertutasuna, gaztetasuna eta produkzio ekologikoa. Alkatearen Dekretuak ezarritako baldintzak ez betetzea azokaren etorkizuneko edizioetan parte-hartzeko debekuarekin zigortzen da.

42. Ikus daitekeenez, Arartekoaren jarduketa egokia gorabehera, udalak, araudiarekin edo gabe, gardentasunik eta arrazoirik gabeko portaera arbitrarioari eusten dio. Horrek guztiak azokan parte hartzeko hautagaia defentsarik gabe uzten du.

**43. Hona hemen beste kasu erreal bat:**

Udalerriko festa-garaian, udalak bertako artisautza erakusteko eta saltzeko azoka bat antolatu du. Azoka hori antolatzeko, udalak 2017an dekretu bat onartu zuen, hau ezartzen zuena: lehentasuna ematea tokiko, eskualdeko eta probintziako eskabideei, ordena horretan.

Azokan parte hartu nahi zuen hautagaietako batek kozinatutako elikagaiak saltzeko txosna bat instalatzeko eskaria aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioarekin batera.

Udalak adjudikaziodunen zerrenda onartu zuen. Zerrenda horretan kozinatutako elikagaiak saltzen zituzten hautagaiaren hiru lehiakide zeuden, eta denak ziren gertuagoko udalerrietakoak. Zehazki, horietako bat udalerrri berekoa zen. Beste biak, ostera, gertuagokoak izan arren, ez ziren lurralde historiko berekoak.

Udaleko idazkariak hautagaiaren eskaera ukatzea erabaki zuen «onartutako irizpideak ez betetzeagatik».

Eskatzaileak idazki bat aurkeztu eta honakoa alegatu zuen: «Ez da zehazten zein den bete ez den irizpidea». Ukatutako eskaera berraztertzeko eskatu zuen.

Eskatzaileak beste idazki bat aurkeztu zuen behin espedientea berraztertuta, eta baimendutako bi eskabideek oinarrietan araututako lehentasun-baldintzak betetzen ez zituztela adieraziz; izan ere, jarduera bera egiten zuten adjudikaziodunak ez ziren udalerrikoak, ez eskualdekoak, ezta probintziakoak ere.

44. Kasu honetan, udalaren jarduketan gardentasun falta, oinarrietan zehaztutako arrazoiaren motibazio falta eta oinarrien ez-betetzea dago, udalerriarekiko gertutasunari lehentasuna eman diolako lurralde historiko berekoa izatearen aldean. Horrek berriro ere uzten du eskatzailea inolako defentsa posiblerik gabe.

45. Hirugarren eta azken kasua:

Kozinatutako elikagaiak saltzen dituen ekoizle eta egile batek normaltasunez hartu izan du parte nekazaritza- eta abeltzaintza-azoka batean 2013tik, eta beti instalatu izan du bere txosna udalaren baimenarekin.

2018ko apirilean alkatetzaren dei bat jaso zuen urte horretan bere txosna instalatzeko baimena ez zitzaiola eman behar jakinarazteko. Izan ere, urte horretan kozinatutako elikagaiak saltzen zituzten hiru txosna baino ez ziren instalatuko, eta, beraz, azokan parte hartzen denbora gehiago zeramaten gertuko txosnei emango zitzaie baimena.

Ekoizle eta egileak alegazio-idazki bat aurkeztu zuen, deia jaso zuen egunean oraindik ez baitziren onartu eskabideak aurkezteko oinarriak; horrenbestez, ez zuen eskabidea aurkeztu udalerritik kanpoko saltzaileak diskriminatzea legea urratzea dela ulertuta.

46. Deskribatutako udalen jarduketetan arbitrariotasunez jokatu da, eta argi geratu da udal batzuek hainbat baliabide erabiltzen dituztela azokan parte hartu nahi duten operadore ekonomikoei azokan parte hartzeko baimena ukatzeko, baldin eta ez badira udalerrikoak, udalerrri horretatik urrunekoak badira edo sinpleki ez baldin badira hautatzaileen gustukoak.



- 47.** Erraz, garden eta aurrez jakiteko moduko printzipioetan oinarritutako irizpideen aurkakoa da noizean behingo merkatuetako parte-hartzaileen hautaketarako interes orokorreko irizpide kopuru handia sortzea. Gainera, askotan behar ez bezala erabiltzen dira, are tokiko ekoizleari edo adiskide denari mesede egitea bilatzen duten hautaketa diskriminatzaileak ezkutatzeko ere.
- 48.** Indarrean dagoen legeria errespetatuz, udalek diru-laguntza lerro egokiagoak sor ditzakete tokiko ekoizleen profesionaltasuna eta prestakuntza bultzatzeko, baita beste interes orokorreko gai batzuk ere, eta ez dute zertan erabili urteko egun bakarrerako baimen-prozedura bat. Izan ere, baimenaren oinarri bakarra jabari publikoko zoruaren okupazioa da. Indarrean dagoen araudiaren arabera, produktu horiek saltzen dituzten merkatuko operadore ekonomiko sedentarioek kokatze-askatasuna izateaz gain, udalerrian ere saltzen dute.
- 49.** Udalek tokiko produktuak sustatu nahi badituzte, ezin dute parte-hartzaileen hautaketa diskriminatu nazionalitate-, egoitza- edo bizileku-arrazoiengatik.

V. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN, BILBAO BIZKAIA KUTXAREN ETA EUDELEN LANKIDETZA-HITZARMENA

- 50.** Honako hau ezartzen du Eusko Legebiltzarraren 2008ko Nekazaritza eta Elikadura Legeak 65. artikuluan:

«65. artikulua. Tokiko merkatu eta azoka tradizionalak.

- 1. Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak Euskal Autonomia Erkidegoko merkatu eta azoka tradizionaletan merkaturatzen dituzten ekoizle-egileek, baldin eta produktu horiek edo lehengaiak Euskadikoak badira, argi eta garbi identifikatuta agertu beharko dute** merkatuotan, eta dagokien **ekoizle-egileen erroldan inskribatuta** (alegia, beren egoitza soziala non dagoen, Lurralde Historiko horretako erroldan).
2. Bestelako kasuetan, parte-hartzaileek argi eta garbi identifikatu eta bermatu beharko dute beren ekoizpenen jatorria, eta Euskal Autonomia Erkidegoko araudian jasotako gainerako bestelako baldintza guztiak ere bete.
- 3. Araudiari dagokionez, eskumena daukaten foru-organismoek arautuko dituzte artikulua honetako 1. atalean sartzen diren azoka eta merkatuak; eta atal horrek aipatzen duen ekoizle-egileen errolda egitea ere foru-organismoek dagokie».**

- 51.** Hau da, manuak Euskadin beren produktuak saltzen dituzten ekoizleak eta egileak errolda batean inskribatuta egotera derrigortzen ditu. Errolda horren helburua da jatorria identifikatzea eta bermatzea: Euskadi. Manuak ezarritakoari jarraikiz, aipatutako errolda hori foru-aldundiek arautuko dute.



52. Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) kasuan, 2015eko otsailaren 10eko Foru Dekretuak arautzen du aipatutako errolda.¹⁰

53. Aipatutako foru-dekretuaren 4. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan honako hau ezartzen zen:

«3. Erroldan inskribatuta egotea **derrigorrezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak **Bizkaiko tokiko merkatu eta azoka tradizioaletan merkaturatzen dituzten ekoizle-egileentzat****, Foru Dekretu horretako 2. eta 3. artikuluetan zehaztutako moduan.

4. Erroldaren helburua Foru Dekretuak aipatzen dituen ekoizle-egileen inbentario bat egitea da, bai eta errolda horretan inskribatuei buruzko beharreko informazioa modu eguneratuan eskuragarri izatea ere».

54. Horrela idatzita, Bizkaiko azoketan parte hartu eta produktuak saldu ahal izateko, bertan erroldatuta egon behar da.

55. Errolda horren helburua nekazaritza- eta elikadura-produktuen ekoizleak eta saltzaileak identifikatzea baldin bazen, erroldatuta egoteak ezin zezakeen ekarri Bizkaiko azoketan produktuak saldu nahi zituzten pertsoneri sarbidea ukatzea. Hau da, errolda hori justifikaziorik gabeko sarrera-oztopoa zen.

56. Aipatutako 15/2015 Foru Dekretua indarrean zegoela, BFAk, BBK Banku Fundazioak eta EUDELeK Bizkaiko nekazaritza-azoka eta -merkatuak antolatzeko hitzarmen bat sinatu zuten 2015eko martxoaren 16an¹¹.

57. 2015eko maiatzaren 12an, otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretua aldatu zen, 65/2015 Dekretuaren bitartez¹². Zehazki, tokiko azoka eta merkatu tradizionalen gaineko foru-dekretuaren 3. artikuluari lerrokada bat gehitu zitzaion:

«Foru-dekretu honen xede ez diren ekoizleek eta/edo egileek Bizkaiko merkatu eta azoka tradizioaletan parte hartu ahal izango dute Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 65.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, merkatu eta azoka tradizionalak antolatzen dituzten erakundeei dagokienez».

58. Hau da, aldaketa horrek Bizkaiko erroldan inskribaturik ez daudenek «tokiko merkatu eta azoka tradizioaletan» parte hartzea ahalbidetzen du. Aldaketa hori

¹⁰ Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko lurralde historikoan egiten diren merkatu eta azoka tradizioaletan nekazaritza- eta elikadura-produktuak saltzen-egiten dituzten pertsonen errolda arautzen duena. BOB, 32 zk., 2015eko otsailaren 17koa.

¹¹ EUDELen webgunea. Hemen aurki daiteke:

http://www.eudel.eus/eu/documentos/asuntos_sociales_0 (azken kontsulta apirilaren 12an)

¹² Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 12ko 65/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko lurralde historikoan egiten diren merkatu eta azoka tradizioaletan nekazaritza- eta elikadura-produktuak saltzen-egiten dituzten pertsonen errolda arautzen duen otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretua aldatzekoa.



positiboa da eta lehiari egiten dio mesede; izan ere, 2015eko otsaileko foru-dekretua idazterakoan ezarri zen oztopoa desagerrarazten du arau-mailan. Oztopo hori Bizkaiko azokaren batean parte hartzeko erroldatuta egon beharra zen.

- 59.** Horrela, Bizkaian erroldatuta ez dauden operadore ekonomikoek Bizkaian antolatzen diren noizean behingo merkatuetan parte hartu dezakete antolakuntzak ezarritako baldintzak betetzen badituzte; izan ere, ez dute Bizkaikoak ez izateagatik erroldatu behar. Baldintza horiek ezin izango dute inola ere nazionalitate-, erresidentzia- edo bizileku-arrazoiengatik inor baztertu, Eusko Jaurlaritzaren «Euskadin tokiko azokak eta feriak antolatzeko gidak» egoki jasotakoari jarraikiz¹³.
- 60.** Zentzu horretan, egoki irizten zaio 2015eko maiatzean foru-dekretuari egindako aldaketa hiru erakundeek 2015eko martxoaren 16an sinatutako hitzarmenean ere islatzeari. Horrexegatik, eskatu da aipatutako hitzarmen horri aldaketa bat egiteko; maiatzaren 12ko 65/2015 Foru Dekretuari gehitutako klausula bera gehitzea, hitzez hitz.
- 61.** Horri esker, azoketako parte-hartzaileak hautatu behar dituztenek, gehienetan, udalek, edo udalek esleituta azokak antolatzeko ardura hartzen duten enpresek, ezin izango diete Bizkaiko erroldan inskribaturik ez dauden operadore ekonomikoiei azoketan parte hartzea ukatu.

¹³ Euskadin tokiko azokak eta feriak antolatzeko Eusko Jaurlaritzaren gida 2016an argitaratu zuten hiru foru-aldundiek eta EUDELeK. Webgunean kontsulta daiteke helbide honetan: http://www.euskadi.eus/eusko-jauraritza/-/tokiko_azoken_gida/



VI. ONDORIOAK

- 62.** Tokiko noizean behingo azoka eta merkatuetan parte hartzen duten operadore ekonomikoak hautatzen dituzten udalen ebazpenak Lehiaren Defentsarako Legeak aurreikusitako debekuen menpe daude Lege horren 4.2 artikulua ezarritakoaren arabera; izan ere, artikulua horretan jasotzen diren debekuen artean daude aipatutako tokiko azoketan parte hartu eta beren produktuak saldu nahi dituzten operadoreen arteko lehia saihestu, mugatu edo faltsutzen duen edo eragin hori izan dezakeen edozein hitzarmen edo erabaki, xedea edozein dela ere.
- 63.** Noizean behingo merkatuetan jarriko diren saltokiak hautatzeko prozedura udal bakoitzak zehaztuko du, betiere lehia-araudia eta gardentasunaren, inpartzialtasunaren, diskriminazio ezaren eta publikotasunaren irizpideak errespetatuz. Edozein kasutan, hautaketa-prozesuak ezingo du nazionalitate-, erresidentzia- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatu.
- 64.** EUDEL-en kalez kaleko salmentarako ordenantza-ereduaren 8.3 artikuluan ezartzen da saltokiak hautatzeko interes orokorreko irizpideen zerrenda irekia. Hauek dira irizpide horiek: esperientzia, prestakuntza, eskatzailearen egoera ekonomiko eta soziala, produktuaren kalitatea, etab. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen dugu udalek aipatutako eredia erabiltzen dutenean irizpide bakoitzaren haztapen bat gehitzea eta irizpide orokor horiek puntuatzeko elementu objektiboak ematea.
- 65.** Hautemandakoaren arabera, udalek ia inoiz ez dituzte haztatzen aipatutako interes orokorreko irizpideak, eta irizpide bakoitza nola puntuatuko den ere ez dute ezartzen. Horren ondorioa lehia, gardentasuna, inpartzialtasuna, diskriminazio eza eta publikotasuna lehenesten dituen araudiak lortu nahi duenaren juxtu kontrakoa da.
- 66.** Printzipio horiei jaramonik ez egitearen ondorio zuzena autonomia-erkidegoan egiten diren azoka tradizionaletan parte hartzeko baimena jaso ez dutenek defentsarik ez izatea da. Azken emaitza, berriz, EAEn egiten diren noizean behingo merkatuen arteko konpetentzia falta da.
- 67.** LEA/AVCk Bizkaiko Foru Aldundiari, EUDELi eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioari maiatzaren 12ko 65/2015 Foru Dekretuari gehitutako klausula bera hitzez hitz gehitzeko eskaera egin zion, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen duen erroldan inskribatuta ez dauden ekoizleek eta egileek Bizkaiko merkatu eta azoka



tradizionaletan parte hartzeko aukera izan dezaten. LEA/AVCk egiaztatu ahal izan du horren gaineko izapideak abian direla gaur egun: hiru erakundeetako ordezkarien sinadurak besterik ez dira falta.